

TAILERRAREN INFORMAZIO GIDA

ARLOA: IRAUNKORTASUNA

TAILERRA: KONTSUMO IRAUNKORRA. URA, HONDAKINAK ETA ENERGIA
AURREZTEN.AZTARNA EKOLOGIKOA.

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

Fax: 945 01 66 01

Email: formacion-
araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

Fax: 94 403 22 21

Email: formacion-
bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

Fax:943 02 25 92

Email: formacion-
gipuzkoa@kontsumobide.eus

1. Helburua

Aztarna ekologikoaren kontzeptua ezagutzea eta ura, hondakinak eta energia aurrezteko kontsumo-ohiturak hartzea, garapen iraunkorra lortzen lagunduko duten ohiturak, alegia.

2. Edukiak

- 1.- Aztarna ekologikoa
- 2.- Urak bizitzarako duen garrantzia
 - 2.1. Ur-baliabideak
 - 2.2. Uraren banaketa
- 3.- Ur-kontsumoan aurreztea
 - 3.1. Sukaldean
 - 3.2. Komunean
 - 3.3. Garbiketa-lanetan
- 4.- Hondakinen murrizketa
 - 4.1. Solteko salmenta eta produktuen gehiegizko paketatzea
 - 4.2. Ontzien bolumena
- 5.- Birziklatzea eta ontzien birziklatzealdia
- 6.- Hondakinen sailkapena, gaikako bilketa-sistemaren arabera
- 7.- Energia-kontsumoan aurreztea
 - 7.1.- Berokuntza eta ur beroa
 - 7.2.- Etxetresna elektrikoak
 - 7.3.- Argiztapena
 - 7.4.- Energia-etiketa

3. Ariketak

3.1. Aurretikoa

Ariketa 1: Galdesorta

Jardueraren helburua:

Tailerrean landuko diren gaiei buruz aurretik dituzten jakintzak aktibatzea, baita gai horiei buruzko interesa piztea ere.

Jarduera egiteko jarraibideak:

Jarduera galdesorta betetzean datza. Tailerra garatzeko beharrezkoa ez bada ere, komenigarria da jarduera hau Kontsumoko Prestakuntza Zentrora bertaratu aurretik egitea.

GALDESORTA

1.- Zer da aztarna ekologikoa?

- a. Mendian paseatzean uzten den seinalea da
- b. Produktu ekologikoen etiketetan azaltzen den ikurra da, produktu horiek ingurumenerako kaltegarriak ez direla jakiteko
- c. Kontsumitutako baliabideak ekoizteko eta sortutako hondakinak asimilatzekeo behar den lursaila da

2.- Hortzak garbitzen dituzunean...

- a. Hortzeskubila bustitzeko eta ahoa garbitzeko soilik irekitzen duzu ur-txorrota
- b. Denbora guztian irekita edukitzen duzu ur-txorrota
- c. Egunean behin bakarrik garbitzen dituzu hortzak

3.- Noiz ureztatzen dituzu landareak?

- a. Gaez
- b. Egunez, bero egiten duenean
- c. Hobe da ur gutxirekin bizitzen ohitzea

4.- Honako honetarako erabiltzen duzu komunontzia:

- a. Zure eginkariak egiteko
- b. Hondakinak botatzeko
- c. Zure txakurrari edaten emateko

5.- 1etik 3ra bitarteko zenbakien bidez, adierazi honako jokabide hauetatik zein lehenetsiko zenukeen ingurumena ahal den modurik ekologikoenean kudeatzeko:

- a. Murrizketa: _____

- b. Berrerabilera: _____
 - c. Birziklatzea: _____
- 6.- Zer adierazten du birziklatzealdia terminoak?
- a. Material mota jakin bat zenbat aldiz birzikla daitekeen
 - b. Birziklatutako produktuaren iraungarritasuna
 - c. Birziklatutako produktuari eman dakioken erabilera mota
- 7.- Supermerkatu bateko elikadura-atalean, kartoi birziklatuko ontziak aurki ditzakegu.
- a. Egia
 - b. Gezurra
- 8.-Zure ustez garrantzitsua eta beharrezkoa al da hondakinak bereiztea?
- a. Bai
 - b. Ez
- 9.- Ba al dakizu edukiontzi bakoitzean zer hondakin mota utzi behar den?
- a. Bai, edukiontzi bakoitzean utzi behar diren hondakin guztiak ezagutzen ditut.
 - b. Oro har bai, baina zalantza batzuk ditut
 - c. Oso ondo ez
 - d. Oso neurri txikian
- 10.- Kanean zoazela produkturen bat kontsumitzen baldin baduzu, zer egiten duzu bilgarriarekin?
- a. Normalean lurrera botatzen duzu
 - b. Hurbilen dagoen paperontzira botatzen duzu
 - c. Gorde egiten duzu eta dagokion edukiontzian uzten duzu, hondakin motaren arabera
- 11.- Produktu bat erosterakoan, ontzi mota kontuan izaten al duzu aukeratzeko irizpide gisa?
- a. Bai
 - b. Ez
- 12.-Zure ustez zer da “energia modu eraginkorrean erabiltzea”? Honako hauen artean, bilatu zein izan daitekeen definizioa:
- a. Energia-iturri konbentzionalek edo ez-berriztagarriek duten etekin bera edo handiagoa duten energia-iturri berriztagarriak erabiltzea
 - b. Etxetresna elektrikoak ahalik eta erabilera gehienetarako erabiltzea, ahalegina eta denbora aurrezteko, emaitza onenak lortzearren
 - c. Energia aurrezten duten teknologiak eta bizi- eta lan-sistemak garatzea

- d. Energia beharrezkoak ez diren jardueretan ez erabiltzea, eta beharrezkoak diren jarduerak egitea ahalik eta energia gutxien kontsumituz

Soluzioak:

1.- Zer da aztarna ekologikoa?

c- Kontsumitutako baliabideak ekoizteko eta sortutako hondakinak asimilatzeke behar den lursaila da

2- 4.- Ez dago soluziorik. Norberaren ohiturak zein diren jakiteko dira.

5.- 1etik 3ra bitarteko zenbakien bidez, adierazi honako jokabide hauetatik zein lehenetsiko zenukeen ingurumena ahal den modurik ekologikoenean kudeatzeko:

a. Murrizketa: 1

b. Berrerabilera: 2

c. Birziklatzea: 3

6.- Zer adierazten du birziklatzealdia terminoak?

a. Material mota jakin bat zenbat aldiz birzikla daitekeen

7.- Supermerkatu bateko elikadura-atalean, kartoi birziklatuko ontziak aurki ditzakegu.

a. Egia

8 - 11.- Ez dago soluziorik. Norberaren ohiturak zein diren jakiteko dira.

12.-Zure ustez zer da “energia modu eraginkorrean erabiltzea”? Honako hauen artean, bilatu zein izan daitekeen definizioa:

c. Energia aurrezten duten teknologiak eta bizi- eta lan-sistemak garatzea

d. Energia beharrezkoak ez diren jardueretan ez erabiltzea, eta beharrezkoak diren jarduerak egitea ahalik eta energia gutxien kontsumituz

3.2. Tailerrari dagokionez

ARIKETA 1: AZTARNA EKOLOGIKOARI BURUZKO BIDEOA

Ikasgelako taldeak aztarna ekologikoari buruzko azalpen-bideo bat ikusiko du, gogoeta egitera bultzatzen duen bideoa.

Bideoa ikusi ondoren, ikasleak talde txikitik banatuko dira ondorengo jarduerak egiteko.

OHARRA: Jarraian deskribatuko diren jarduera-blokeen ordena aldatu egingo da ikasle kopuruaren arabera.

BLOKEA: URA

ARIKETA: NORK ESANGO ZUEN!

Jarduera honekin, bitxikeria zirrargarri batzuen bitartez, ura aurrezteak duen garrantziaz kontzientziatu nahi dira ikasleak.

Bukatu gabe dauden hainbat esaldi emango zaizkie eta osatu egin beharko dituzte.

ARIKETA: URAREN JOKOA

Hainbat proba eginez eta egiten zaizkien galderari erantzunez, ikasleek uraren alderdiei buruz gehiago jakingo dute, esate baterako, aurrezteko aholkuei eta ur-kontsumoari buruz.

Gainditzen duten proba bakoitzeko, ur-kantitate jakin bat emango zaie eta probeta batera bota beharko dute. Jokoa amaitzean ur-kantitate handiena lortu duen taldeak irabaziko du.

BLOKEA: HONDAKINAK

ARIKETA: EROSKETA ETA INGURUMEN-KOSTUAK

Ikasgelako taldea bi taldetan banatuko da. Talde bakoitzari erosketak egiteko zerrenda bat emango zaio. Erosten dituzten produktuak puntuak dituzten fitxengatik trukatu dira ingurumen-kostuen edo -irizpideen arabera. Puntu gehien lortzen duen taldeak irabaziko du, hau da, ingurumena nahiz osasuna gehien errespetatzen duen erosketa egin duenak.

ARIKETA: NON UZTEN DIRA HONDAKINAK?

Jarduera honetan, taldea azpitaldetan banatuko da, eta hondakinen irudiak dituzten fitxak emango zaizkie. Fitxak hondakinari dagokion edukiontzian kokatu beharko dira, edo dagokion gaikako bilketako lekura eraman.

Gero, lana zuzenduko da eta prestatzaileak hiri-hondakinen sailkapenari, gaikako bilketari eta birziklatzeari buruzko azalpenak emango ditu.

BLOKEA: ENERGIA AURREZTEA

ARIKETA: ETXE ERAGINKORRA IZENEKO JOKOA

Mahai-joko baten bitartez, ikasleek etxeko energia-kontsumoa aztertuko dute eta gure eguneroko bizitzan energia aurrezteko dauden modu desberdinak landuko dira.

ARIKETA: ETA ZER EGIN DEZAKEGU?

Ikasleek tailerrean ikusitako guztiari buruzko gogoeta egingo dute, eta etxeko, eskolako nahiz norberaren eremuan kontsumo-ohiturei buruz hartuko dituzten konpromisoen zerrenda egingo dute, azterna ekologikoa murrizten laguntzeko.

4. Gaitasunekiko lotura

4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorria duten taldeak

| | | | |
|--|--|-------------------------------|---|
| Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia | Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia | Elkarbizitzarako konpetentzia | Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia |
| | ✓ | | ✓ |

| | | | |
|------------------------------|--|-----------------------------|---------------------------|
| Izaten ikasteko konpetentzia | Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia | Matematikarako konpetentzia | Zientziarako konpetentzia |
| | ✓ | | ✓ |

| | | | |
|-----------------------------|---|-----------------------|----------------------|
| Teknologiarako konpetentzia | Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia | Arterako konpetentzia | Konpetentzia motorra |
| ✓ | ✓ | | |

4.2. Beste talde batzuk

| | | | |
|--|--|--|-------------------|
| Ama-hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna | Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna | Matematika-gaitasuna eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean | Gaitasun digitala |
| | | | |

| | | | |
|----------------------------|------------------------------|---|---|
| Ikasten ikasteko gaitasuna | Gaitasun soziala eta zibikoa | Ekimenaren zentzua eta enpresa-espirtua | Kultura-arloko kontzientzia eta adierazpena |
| ✓ | ✓ | | |

5. Baliabideak

Informazio gidak

- KONTSUMITZAILEAREN ETA ERABILTZAILEAREN GIDA. Eusko Jaurlaritza. Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza. 2007.

Material didaktikoak

- KONTSUMO ARDURATSUAREN GIDA. Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritza. 2009.

Web-orriak

- KONTSUMOBIDEKO WEBGUNEA
www.kontsumo.eus
- INGURUMEN-JARDUKETARAKO SOZIETATE PUBLIKOA
<http://www.ihobe.eus/Default.aspx?IdMenu=A2238BD0-3048-4D9D-AB8C-C91C6FDFD475>
- ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
<http://www.eve.eus/>

Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

Fax: 945 01 66 01

Email: formacion-araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

Fax: 94 403 22 21

Email: formacion-bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

Fax: 943 02 25 92

Email: formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus